

## Helburua.

Produktu honen inguruan jakin behar duzun funtsezko informazioa ematen dizu dokumentu honek. Ez da dokumentu komertzial bat. Produktu honen izaera, arriskuak eta kostuak eta izan ditzakeen galera-irabaziak zuri ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin konparatzen laguntzeko informazioa da, legeak eskatzen duena.

## Produktua

Izena: GBP saltzea 12 hilabetera euroen kontra.  
 Ekoizlea: Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito (hemendik aurrera, Laboral Kutxa)  
 Webgunea: www.Laboralkutxa.com; informazio gehiago nahi baduzu, honako zenbaki honetara dei dezakezu: 943796 300  
 Eskumeneko agintaria: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala  
 Dokumentu hau egin den eguna: 2021-09-30

**Ulertzeko zaila izan daitekeen produktu konplexu bat eskuratu behar duzu.**

## Zer da produktu hau?

**Tasa:** Dibisaren gainean kotizatu gabeko etorkizuna. Produktua finantza-tresna deribatua da, eta haren bitartez Bezeroak eta Laboral Kutxak konpromisoa hartzen dute etorkizuneko egun batean (“Likidazio Eguna”) bi diru-kopuru jakin batzuk elkartrukatzeko bi dibisatan (“Dibisa Parea”), aldez aurretik adostutako tasa batean (“Etorkizuneko Tasa”).

**Helburuak:** Etorkizunean GBPtan edozein kobratze egitean sortuko den zalantza deuseztatzea da produktu honen helburua. Produktu honen bitartez, etorkizuneko une batean GBP saltzeko kanbio-tasa bat (“Etorkizuneko Tasa”) adosten da. Bezeroak dibisa-arriskua kudeatzen du dibisaren balio-galerako mugimendu baten aurrean, baina dibisaren kotizazioaren aurkako mugimenduetatik ez du probetxurik ateratzen.

Nahitaez bete beharreko eperako kontratu bat da, Laboral Kutxaren eta bezeroaren artean sinatzen dena. Horren arabera, bezeroak adostutako GBP kopurua saltzeko betebeharra hartzen du (eta Laboral Kutxak hura erosteko betebeharra) kontratuan ezarritako kanbio-tasari jarraikiz (“Etorkizuneko Tasa”) eragiketaren mugaegunean.

Bezeroak aldez aurretik saldu ahal izango du adostutako dibisa osoa edo haren zati bat, kontratuan adostutako kanbio-tasa finkoan edo une horretan adosten den kanbio-tasa aldarrean, kontratua formalizatzen den unean ezarritako baldintzen arabera.

Eperako dibisa-salmenten kontratuak ez dira merkatu antolatuetan negoziatzen, eta alderdi kontratugileek adosten dituzte eragiketaren baldintza partikularrak.

Bezeroak bere gain hartzen du muga-egunerako likidazioak ezkutuko galera bat ekar liezaiokeela merkatuan une horretan lor zezakeen kanbio-tasarekiko, litekeena delako dibisa baldintza hobeetan saltzeko aukera eduki izana.

## Jomugan duen inbertitzaile txikizkaria:

GBPko kobratzeak egiten dituztenez kanbio-arriskua kudeatu nahi duten bezeroak, esportatzaileak adibidez, etorkizunean dibisa hori erabiliz egin beharreko edozein kobratzean sortzen den zalantza ezabatu nahi dutenak.

Bezeroek sakonetik ezagutu beharko dituzte finantza-munduan produktu eta/edo esperientzia mota honek dauzkan arriskuak, eta kostu handiago bat onartzeko prest egon beharko dute, hain zuzen ere, eragiketa eskura egingo balute —eragiketaren mugaegunean edo aurreko momentu batean— izango luketena baino kostu handiago bat.

Galerak bere gain hartzeko gaitasuna eduki behar du bezeroak, dibisa adostutakoaren arabera saltzeko betebeharra betetzen ez badu.

Produktu hau ez da egokia honako bezero hautentzat:


- Komenentzia-testaren arabera, produktu mota hori ez zaiela komeni jakin duten bezeroak.
- Beren jardueran aldatzeko arriskurik onartzen ez duten bezeroak.
- Galerak beren gain hartzeko prest ez dauden bezeroak.

Epea: 12 HILABETE

## Zer arrisku dauzkate eta zer lor nezake trukean?

Arrisku-adierazle laburtua

1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---



Arriskurik txikiena

Arriskurik handiena



Aldez aurretik irtenez gero, litekeena da galera handiak izatea. Agian ezin duzu produktua aldez aurretik ezereztu. Litekeena da kostu gehigarri esanguratsuak ordaindu behar izatea produktua aldez aurretik ezerezteagatik.

Arrisku-adierazle laburtuak produktu honen arrisku-maila adierazten du, beste produktu batzuekin konparatuta. Merkatuen bilakaeraren ondorioz edo Laboral Kutxak ordaindu ezin dizulako produktuak dirua galtzeko dauzkan probabilitateak erakusten ditu. Produktu hau 7. arrisku klasean kalifikatu dugu, 1etik 7ra doan eskala batean, eta horrek esan nahi du arrisku-mailarik handiena duela. Produktu honek ez du merkatuak etorkizunean izan dezakeen bilakaeratik babesten, eta beraz kontuan hartzeko moduko galerak ekar ditzake. Laboral Kutxak ezin badizu adostutakoa ordaindu, kontuan hartzeko moduko galerak izan ditzakezu.

### Errentagarritasun-egoerak

Zenbateko nominala EUR 10.000		Adostutako azken muga-eguna
		12 hilabete
Tentsio-egoera	Behin kostuak kendu ondoren jaso edo ordain dezakezuna	-4.879,25
	Batez besteko irabazia/galera zenbateko nominalaren gainean	-%48,79
Kontrako egoera	Behin kostuak kendu ondoren jaso edo ordain dezakezuna	-1.053,58
	Batez besteko irabazia/galera zenbateko nominalaren gainean	-%10,54
Neurrizko egoera	Behin kostuak kendu ondoren jaso edo ordain dezakezuna	-41,73
	Batez besteko irabazia/galera zenbateko nominalaren gainean	-%0,42
Aldeko egoera	Behin kostuak kendu ondoren jaso edo ordain dezakezuna	906,82
	Batez besteko irabazia/galera zenbateko nominalaren gainean	%9,07

Koadro horretan ageri diren zenbateko eta ehunekoek erakusten digute kontratatutako kanbio-tasaren eta merkatu-tasaren aldean zenbateko aldea izan daitekeen (alde negatiboa edo positiboa izan daiteke) egoera bakoitzean, zenbateko nominala 10.000 EUR dela aintzat hartuta. Aurkeztutako egoerek inpaktuen aurreikuspena erakusten digute etorkizunari begira, iraganeko datuetan oinarrituz Zenbateko Nominal horretarako, eta ez dira adierazle zehatz bat. Zenbateko zehatzak merkatuko bilakaeraren arabera eta Zenbateko Nominala edo produktua mantentzen den denboraren arabera aldatuko dira. Inbertitzalearen helbideari dagokion zega-legeriak azken errendimenduan eragina izan dezake.

### Zer gertatzen da Laboral Kutxak ordaintzeko modurik ez badu?

Bezeroak finantza-galera bat izango luke. Gainera, produktu horrek ez du Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtz baten estaldurarik, ezta beste edozein berme-sistema edo bermatzailearen estaldurarik ere.

### Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) erakusten du produktuaren etekinean ordaintzen dituzun guztizko kostuek izango duten inpaktua.

Guztizko kostuen barruan, kostu bakarrak, errepikariak eta gehigarriak bilduko dira.

Hemen adierazitako zenbatekoak produktuaren berezko kostu metagarriak dira, adostutako mantentzealdiari eta aldez aurretik irteteagatik ezar litezkeen penalizazioei dagozkienak. Inbertsio-zerbitzuengatikoa kostea eta hirugarrenetikoa pizgarria 0 eurokoa da; horrek %0 adierazten du inbertsioaren gainean. Kopuruak 10.000 euroko zenbateko nominala dute guztira. Kopuruak kalkuluak baino ez dira, eta beraz etorkizunean alda litezke.

### **Kostuak denboran zehar**

10.000 euroko kontrabalia	IRTEERA ERAGIKETAREN MUGA-EGUNEAN
EGOERAK	
Kostuak guztira	10,03 EUR
Etekinaren murrizketaren gaineko inpaktua	% 0,10

Kostuen osaera

Beheko koadroak honako hauek erakusten ditu:

- Gomendatutako mantentze-aldiaren amaieran kostu mota desberdinek produktuaren etekinean izan dezaketen inpaktua.
- Kostu kategoria bakoitzaren esanahia.

Koadro honek etekinaren gaineko inpaktua erakusten du			
Kostu bakarrak	Sarrerako kostuak	% 0,10	Zure produktua egitean zuk ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioan dago jasota.
	Irteerako kostuak	% 0,00	Zure produktuaren irteerako kostuen inpaktua muga-egunean

Kostu errepikariak	Zorroaren eragiketa-kostuak	% 0,00	Produktuaren azpiko inbertsioen salerosketak guretzat ekarriko dituen kostuen inpaktua
	Beste kostu errepikari batzuk	% 0,00	Zure produktuen kudeaketaren urteko kostuen inpaktua
Kostu gehigarriak	Etekin-komisioak	% 0,00	Ez da aplikatzekoa
	Sortutako interesa	% 0,00	Ez da aplikatzekoa

### Zenbat denboran mantendu behar dut inbertsioa? Dirua aldez aurretik atera al dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 12 HILABETE.

Merkatu antolatuan kotizatuta ez dagoen produktu bat da, Erakundeari lotuta dagoena eragiketaren kontrapartida denez gero. Zuk aldez aurretik ezerez dezakezu forward puntuen ondoriozko prezio-aldea (eperako interes-tasen arteko aldea produktuaren bi dibisen artean) onartuz, aurrerakin-egunetik muga-egunera arte, dagokion dibisaren entrega tartean izanez gero.

Dibisaren entregari ez badago, likidazio bat egingo da eurotan, ezereztearen unean dibisa pareak daukan kotizazioaren arabera eta forward puntuen arabera, eta horrek galera edo irabazia ekar dezake bezeroarentzat.

### Nola erreklama dezaket?

Zuk erreklamazio formal bat aurkez dezakezu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari idazki bat bidaliz, idazki hori Laboral Kutxaren edozein bulegotan entregatuz, edo bestela posta arruntez, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari igorritz (2. Posta-kutxa, HF - 20500 Arrasate – Mondragón). Caja Laboral Net (<https://www.cajalaboral.com>) gunea ere erabili ahal izango duzu, dagozkion erreferentziekin zure burua identifikatu ostean. Horretarako, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren atalean sartu beharko duzu, zure kexa nahiz erreklamazioa Internet bidez helarazteko. Kexak edo erreklamazioa ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, eta denbora hori igarotakoan zure kasua ebatzi ez badute edo erreklamazio edo kexaren azken erabakiarekin ados ez bazaude, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezakezu (Edison 4 28006 Madril).

### Beste datu interesgarri batzuk

2012ko uztailaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 648/2012 Erregelamenduaren (EB) (EMIR) mende dago produktu hau, eta horrek esan nahi du produktu hau kontratatzen duten pertsonak LEI kode bat izan beharko dutela eragiketak egiteko eta ESMA Balore eta Merkatuen Europako Agintaritzak baimendutako eragiketa-erregistro edo gordailu bati eragiketa horien eta eguneroko balioespenen berri emateko. Laboral Kutxaren esku utz ditzakezu araudi horretatik eratorritako komunikazio-betebeharrak, eta horretarako dagokion eskuordetze-dokumentua formalizatu beharko duzu. Prezioak eta mailak adierazi ditugu bezeroak produktua hobeto ulertzeko aukera izan dezan, baina gutxi gorabeherakoak dira, eta alda daitezke kontratazioaren unean.

**IDENTIFIKADOREA:**

**IZEN-ABIZENAK:**

Lekua eta data:

Bezeroaren sinadura

LABORAL Kutxatik